



# ZUZENKETAK (I)

Lehenengo ariketa  
2008ko irailaren 29

# Estilo kontuak (I)

- *Urtero bezala, CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak CAF-Elhuyar sarien 15. edizioa jarri du abian...*
- *CAF –Elhuyar sarien 15. edizioa ospatzen da urtero bezala CAF enpresa eta Elhuyar Fundazioaren eskutik.*
- *(...) Aurtengo 15. edizioan hiru sari nagusi...*
- Urtero bezala, CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak CAF-Elhuyar sarien edizio berri bat jarri du abian, hamabosgarrena.

## Estilo kontuak (II)

- (...) *Elhuyar Fundazioak CAF enpresarekin batera antolatutako ekitaldiak hiru sari nagusi izango ditu...*
- (...) Elhuyar Fundazioak CAF enpresarekin batera antolatutako lehiaketan hiru sari nagusi banatuko dira...

# Estilo kontuak (III)

- (...) *Zientzia dibulgazio sari hauetan hiru artikulu hoberenak sarituko dira, oraingo honetan 4200 € banatuko dira gainera...*
- (...) Zientzia dibulgazio sari hauetan hiru artikulu hoberenak sarituko dira. Orotara 4200 euro banatuko dira lan onenen artean.

# Estilo kontuak (IV)

- (...) euskararen alorrean aditua den epaimahaia **arduratuko da irabazleak izendatzeaz...**

(...) euskararen alorrean aditua den epamahaiak **izendatuko ditu** irabazleak...

- **CAF-Elhuyar sariak abian jarri dira, CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak eskainita.**

CAF-Elhuyar sariak abian jarri dute CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak

# Kalko okerrak (...Z)

- (...) CAF-Elhuyar sariek zientzia dibulgaziorako artikulu onenak sarituko dituzte 4200 € banatuz irabazleen artean.
- (...) CAF-Elhuyar sarietan, 4200 euro banatuko dituzte hiru dibulgazio-artikulu onenen artean..

# Kalko okerrak: hiztegiarenak

- *Martxan jarri*: abian jarri
- *Ospatu* (gaztelaniaz *celebrar- aditzatik kopiatutako kalkoa*): egin, antolatu...
- *Emango dira ezagutzera*: ezagunaraziko dira...

# Esaldiaren antolaketa: tartekirik ez

- (...) Lanak, abenduaren 1a bitartean (*egun hori barne*) jasoko dira...
- Lanak abenduaren 1a bitartean jasoko dira...



# Esaldiaren antolaketa: lokailuak komen artean

- (...) *Irabazleen izenak berriz, datorren martxoan argitaratuko dira.*
- (...) Irabazleen izenak, berriz, datorren martxoan argitaratuko dira.

# Esaldiaren antolaketa: subjektuaren eta aditzaren artean komarik ez

- *CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak,  
CAF-Elhuyar sariak abian jarri dituzte  
urtero bezala.*
- *CAF enpresak eta Elhuyar Fundazioak  
CAF-Elhuyar sariak abian jarri dituzte  
urtero bezala.*

# Testuaren aurkezpena (errazago irakurtzeko): laburdurarik eta sinbolorik ez

- 15. edizioa
- XV. Edizioa
- 1200 €
  
- Hamabosgarren edizioa
- 1200 euro